

BASERRI TRADIZIONALAREN IRAUPENAREN ALDE

Euskal Herriko baserriaren egoera larriaz hitz asko entzuten - eta egiten- ohituak gauden arren, ez dugu uste handia denik eritzi publikoak arazo honetaz duen ezaguera. Batetik, Europako Ekonomi Elkartek (E.E.E.) dakartzan kalteak aipatzen dira, baina, bestetik, belarriak ikaratu egiten zaizkigu telebistan edo bestelako komunikabideetan, botere publikoek nekazaritzari emaniko diru-laguntzen zifra «astronomikoen» berri jakitean. Ematen du hiritarrek ez dutela guztiz sinesten Euskadiko nekazariak hain txarto bizi direnik.

Europako Nekazal Politika Bateratua (N.P.B.)

Gaurko nekazaritzaren arazoa ulertzeko, ezinbestekoa zaigu Europako Nekazal Politika Bateratuaren ihardunbidean kokatzea, Europako eraginak, topikoa bihurtu bada ere, neurri handi batetan baldintzatzen duelako gure baserriaren egoera.

Jaingai gehienetan defizitariora zen Europa batetan sortu zen N.P.B.a. Bere ekinbide guztiak egoera horren arabera ulertu behar dira. Politika produktibista bati ekin zitzaion, helburu nagusia prezioak mantentzea jarritz eta horretarako prezioak garantizatu egiten zituen ekoizpenari laguntzak emanez.

Halako politikaren ondorioak honako hauek izan dira:

- Prezioen garantiak ekoizpenaren hainbatetarainoko gehikuntza ekarri du, merkatuak ezin izan duelako ekoizpenaren kopurua bildu. (1973.etik 1988.era bitartean E.E.E.ko nekazal produkzioa ehuneko 2 hasi zen urtero, barne kontsumoa ehuneko 0,5 hasi zen bitartean.

- Bilakaera horrek soberakin handiak sortarazi ditu.

- Nekazaritzarako laguntzak ekoiztutako kopuruen arabera izanik, produkziobideen areagotzea ekarri du. Ekoizpen intentsiboa dagoen lekuan natura eta ingururugiroa zigortuak izan dira; eta ekoizpen intentsioa bideragarri ez den lekuetan despulazioa eta desertifikazioa izan ditugu.

- Baserritarren irabazkinak mantentzea prezioen gaineko garantian oinarritzen zen adinean, laguntza gehienak uztapien zabalenak eta intentsiboenak jaso dituzte, hau da, nekazari handienganantz bideratu dira laguntzak, txikien kaltetan. (Europako laguntzen ehuneko 80a, ustiapenen ehuneko 20ak jaso izan du).

- Nekazarien eskuratzeko ahala oso gutxi igon da, nahiz eta nekazal populazio aktiboa ehuneko 35 gutxitu.

- Azkenik, eta aurreko guztiaren ondorioz, E.E.E.ak nekazaritzan egiten duen gastua gero eta handiagoa da, momentu honetan mantendu ezinezkoa mailetara iritsi dela.

Euskal Herriko baserriaren egoera.

Esan beharrik ez dago azaletik aztertu dugun Europako politika hori, nekazari txikiek izandako pausuz pausuko hondamendiaren eragile nagusia izan dela, nekazari handien mesedetan. Gauza jakina den arren, gogora dezagun Euskal Herriko ustategirik handienak ere, txikiak direla Europakoekin gonbaratuz.

Eta halako batetan, bat-batean, gure nekazaritza apal hau Europako aurreratuaren artean sartua izan da. Guk sortu ez ditugun soberakinen ondorio txarrak haiekin banatu beharrean

aurkitzen gara; inolazko prestakuntza eta egokitzapenik izan gabe beste batzuren kontrako lehiaketa basatian sartu gaituzte.

Hemengo nekazaritza ez da egon -eta ez dago- kondizio onetan halako egoera larrian garaile izateko. Batetik, gure lurren orografiak (lur aldapatsuak etab.) ez du ezertan laguntzen produkzio teknika aurrerakoinik erabiltzeko eta ez du leku handirik uzten bestelako ordezkio produkzioak jartzeko. Beraz, gure ohizko produktuetan (esnea, haragia..., European gainezka dauden produktuetan, hain zuzen ere) jarraitu beharra dugu gehienetan.

Baserritarren heziketa tekniko eskasak areagotu egiten du arazoa, baina bestelako ordezkio produkzioari bidea eman nahi zaionean, Merkatu ahalguztidunarekin egiten dugu topo eta gure merkatalpen egituraren eskaziak ezin du lehiatu kanpotik merkeago datozen produktuekin. Gogoratu besterik ez dago, zertan gelditu den garai batean arrakastaz hasitako plastiko azpiko barazkigintza; produkzio maila batera heldurik ez da egon gehiagorako lekurik, kanpotik datozen barazkiak kostu txikiagoz ekoizten direlako. Beste horrenbeste esan genezake ustez mirakulutsu izango zen kiwiaz ere.

Lurraren arazoa dugu bestetik. Nekazaritzarako gai den lur gutxi dugu, eta dagoen apur hori ez dago baserritarrek eskuratzeko eran. Lurrik onenak industriak edo biztanlegoaren asentamenduek aspaldian hartuak izan ziren; beste hainbat pinuz bete dira azkenengo urteetan. Gelditzen dena ez da nekazal iharduerarentzat ziurtatzen, beste edonolako erabilerari begira bait dago. Bai halaxe, hiriak baserri ingurunean egiten duen eraso etengabea bezain latza da.

Gaizki deitua den «lurzoru ez-urbanizagarrian» eraikuntzak (txaletak etab.) egiteko demanda izugarria dago. Hortik dator, batetik, baserri lurren okupazioa edo, hobeto esanda, kolonizaioa. Datu bat ematekotan, esan dezagun Bizkaian, urtero 300 bat txalet eraki izan direla baserri lurretan oraintsu arte; kasu gehienetan txalet baterako eskatzen den lurzorua hektarea

batekoa izanik, urtebetero 300 bat hektarea okupatu izan direla ikusten dugu. Baina hori ez da guztia. Txaletik gabe gelditzen den lurra ere txaletari begira dago, espektatiba hori erabat baztertzen ez delako. Horrek baserri lurren merkaturik eza ekartzen du, lurraren prezioak ez duenez nekazal iharduerarekin zerikusirik nekazariak ezin izango du eskuratu baserrigintzarako oinarritzkoa bezain faltazkoa den elementu hori. Lurralde antolakuntzari buruzko politika eraginkorrik ezak mentedu izan du, gaur egunera arte, egoera kaskar hori. Guzti horri maiztergo edo errentamenduei buruzko legeriaren desgokitasuna erantsi behar diogu.

Arazo guzti horien artean irautea nahi izan duen nekazariak geroago eta handiagoak diren esijentziei aurre egiteko egokitzapen teknologikoaren desafioa (makineria, ikuilu berriak...) izan du gainean. Horren ondorioz Euskal Herriko ustiategi profesional gehienak leporaino zorretan sartuta aurkitzen dira. Horretaz gainera kontutan hartzen badugu nekazal ihardueraren arlo soziala (lan ordutegi luzea, oporrik eza...) errez uler daiteke gazteriak halako bizimoldeetaik ihes egin izana eta gaur egungo Euskal Herriko baserritarren batzbesteko adina oso altua izatea.

Ba ote du irtenbiderik?

Edonork esan lezake, aurrekoa irakurrita, Euskal Herriko baserritarrenak egin duela, inondik ez dagoela E.E.E.ko mugen barruan egoera horri buelta ematerik. Ez horixe!

Lehenbizi esan beharra dago N.P.B.a frakaso handi bat izan dela eta, matizazio askorekin bada ere, E.E.E.koak bertakoak ere frakasotzat hartzen hasi direla. Momentu honetan eztabaidabideandago E.E.E.an N.P.B.aren Erreforma. Europako Batzordeak berak egin duen diagnostikoak aitortzen du ezin daitezkeela gauzak horrela mantendu. Nekazaritzarako Batzordekide edo Komisisarioa den Ray Mac Sharryk erreformarako proposamen gisan aurkeztu duen txosten famatuan, hainbat gauza azaltzen da argiro.

- Ingurugiroa arriskuan dago politika produktibistaren ondorioz. Produkzio intentsiboak kalte zuzena egin du eta produkziobide estentsiboa desagertzeaz dago, horrekin, baserri tradizionalaren kultura hondatuko delarik.

- Baserritarra da ingurugiroaren zaintzale handienetako bat. Beraz, baserritar kopuru bat mantendu beharra dago nekazal lurretan. Baserritarrak betidanik bete izan duen funtzio produktiboaz gainera, ezin da ahaztu beste betekizun hori. Aurrerantzean jangariek gainera, giza kontsumorako bestelako gaiak ekoiztu beharko ditu nekazariak eta bee iharduera dibertsifikatu beharko da, hau guztiau Garapen Erruralerako. Politika eraginkor baten barruan kokatuz.

- Produkzio maila kontrolpean jarri behar da, merkatuen oreka lortzeko, estentsifikazioa bultzateko eta soberakinak gutxitzeko. Nekazal ekoizpeko kalitatezko produktuak sortu behar ditu ingurugiroa errespetatuz.

- Komunitateko diruak beste modu batera banatu behar dira, egiazko «finantza-elkartasuna» lortuz. Nekazari txikiak behar dute laguntzarik gehiena jaso.

Egia da aurreko sermoi gutziak ez direla oraindik praktikara eramane eta ez dugula aurrera eramango den inolako segurantzarik. Diagnostikoan ondo asmatu arren, ekintzetara joanez gauzak ez daude hain ondo. Europako Batzordeak errefomarako proposatu dituen testu juridikoetan nahiko argi ikusten da erroforma sakon bati aurre egiteko bejdurra dagoela, funtsezko arazoak konponektarik gabe gera daitezkeelarik. Ezin ahanzi, gainera, E.E.E.ko herri batzuk (Erresuma batua, kasu) ez dutela egoera aldatzeko inolako interesik. Tirabira handia dugu egun hauetan Bruselaren. Emaizak ikuskizun daude oraindino.

Baina, bien bitartean, erreibindikazioa eta horroka dagokigu guri, guztioi. Nekazal politikaren eredu diferente bat, gure baserriaren etorkizuna garantizatuko duena defendatu behar dugu.

Behar-beharrezkoa da gizarte osoak kontzientzia har dezan nekazaritzaren arazoa guztion dela eta hainbat gehiago Euskal Herriaren kasuan. Gure betiko baserriak, terminu ekonomiko hutsetan konpetitibo izan ezarren, eginkizun sozial izugarri handia betetzen duelako iraun behar duela diogu. Ezin dugu lurperatu kultura tradizional aberats bat. Ezin diogu, baserritarra lurperatuz, ingurugiroari jipoi berririk eman.

Honakoau da nekazazariak bete behar duen eginkizuna: kalitatezko produktuak sortu ingurunea errespetatuz eta produkzio ta kontsumoaren oreka beti mentenduz. Horretarako irabazkinak garantizatu behar zaizkio baserritarrari. Sortzen duen produktuaren trukean bere lanaren ordaina eman behar zaio zuzen-zuzenean, bertan produkzioaren kostu ekonomiko, ekologiko eta sozialak kontutan hartuz. Guk nahi dugun produkzio ereduak kalitatea izan behar du beti helburu. naturari lotutako produktu onak sortu eta Gizarteari eskainiz. Derrigorrezkoa zaigu gure ekoizpen natural hori merkatuan ezagutaraztea, bertoko produktuak bestelakoenganik bereiztuz. Horretarako beharko diren Botere Publikoen ahaletinaz gainera, gizarte osoak ere badu bere egitekoa. Ezin dugu ahantzi Euskal Herrian sortzen diren produktuetan oraindik defizitarioak garela, hau da, bertoko merkatuak hemen ateratzen dena baino gehiago kontsumitzen duela. Horregatik diogu: «guztion onerako, baserritarrak bizi egin behar du!

Jabier Erize